


Ekain berri



EKAINBERRI

Eskaintza Didaktikoa

2020-2021



Miembros de la Fundación Ekain:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



ZESTOAKO UDALA

Ekainberriko kudeaketa:



aranzadi
zientzia elkartea



AURKIBIDEA

1. Informazio Orokorra	3
2. Taldeen Erreserba.....	4
3. Nola Iritsi.....	5
4. Nola Hurbildu.....	6
5. Behin Iritsita.....	7
6. Ekain Familia eta Peio arkeologoa.....	8
7. Eskaintza Didaktikoa	
7.1. Ezaugarriak.....	10
7.2. Helburu orokorrak.....	11
7.3. Eskaintza zehatza	
HH: <i>Kobazuloan Bizi</i>	15
LH 1-2: <i>Animaliei Jarraika</i>	16
LH 3-4: <i>Suaren Bila</i>	18
LH 5-6: <i>Goazen ehizara</i>	20
DBH 1-2: <i>Ehiza Egun Bat</i>	22
DBH 3-4: <i>Ekaingo Artista</i>	24
Batx. - Goi Ikask.: <i>Arkeologoa naiz</i>	26

1. INFORMAZIO OROKORRA

1.1. Prezioa

Orokorra:

Sarrera arrunta: 6 €

Murriztua: 5 €

Ikasleak:

Eskaintza Didaktikoa: 6 €

Bisita bakarrik: 5 €

*** Kotsultatu xehetasunak**

1.2. Orduetgia

Asteartetik ostiralera: **10:00-18:00**

Astelehenetan: **Itxita**

Informazioa zabaldu edo Ekainberri hobeto ezagutzeko, gure webgunea bisita dezakezu:

www.ekainberri.com

Edozein zalantza edo zuen erreserba egiteko, erreserba zerbitzura dei dezakezu:

943 86 88 11



2. TALDEEN ERRESERBA

Ikastetxeek eta gainontzeko taldeek Ekainberri bisitatu aurretik erre serba egitea beharrezkoa da. Erreserba behar bezala burutzeko ondorengo pausoak jarraitu behar dira:

2.1. Eskura izan hurrengo datuak:

- Zentruko datuak (Izena, helbidea, telefonoa, IFZ-a, e-maila).
- Bisitako arduradunaren izena
- Ikasle kopurua
- Irakasle kopurua
- Ikasketa maila/adina
- Bestelako berezitasunak
- Bisita egiteko eguna
- Bisita hasteko momentua (goiza edo arratsaldea)
- Ekainberri igaro behar duzuen denbora
- Hizkuntza

2.2. Jarduera aukeratu (eskaintza didaktikoan zehazten dira):

Bi jarduera mota ditugu eta bakoitzean ere adin desberdinetara egokitutako aktibitateak:

1: Ekaingo erreplikari bisita gidatua

2: Bisita gidatua+tailerra

2.3. Erreserba zerbitzuarekin harremanetan jarri:

943 86 88 11 info@ekainberri.com

2.4. Erreserba konfirmazioa:

Erreserba egiten duzunean, bisitarako datuen konfirmazioa jasoko duzu.

Bisita egunean, Zestoako bulegoan, erreserba konfirmazioa aurkeztu behar da sarrerak jasotzeko momentuan.


Sarrerak bisita ordua baino ordu erdi lehenago jaso behar dira beranduenez.

3. NOLA IRITSI

Ekainberri Zestoan dago, Gipuzkoa erdialdean. Herrira bi bideetatik hurbiltzeko aukera dago, Zumaia eta A-8 autopistatik (iparraldetik) edo Azkoitia eta Azpeitiatik (hegoaldeetik).

A-8 autopistan 12. irteera hartu behar da, eta hortik aurrera, GI-634 errepidea hartu Zestoara iritsi arte.

Hegoaldeetik, Azkoitia eta Azpeitiako herrietatik pasa eta GI-634 errepidea iparralderuntz hartu behar da Zestoara iristeko.



Zumaia: 8 km
Zarautz: 15 km
Getaria: 20 km
Donostia: 35 km
Frantzia: 60 km



4. NOLA HURBILDU

Behin Zestoara iritsita, kotxea edo autobusa Ekainberriko parkinean utzi. Orduan hasiko da Ekainberrira bisita. Herrigunean, Portale kalean, dagoen informazio-bulegora joan eta bertan sarrerak eskuratu. Handik oinez egin behar da Ekainberrirako bidea, inguruaren edertasunaz disfrutatzeko aukera ezin hobea. Zestoatik oinez erreplikara hurbiltzen den heinean, bisitariari gogora datorkio Paleolito garaian bizi zirenen irudia. Bailarako zelaietan eta mendietan barrena erreka ondotik haitzulora iristeko egiten zuten ibilbidea ikusgarria da. Herria zeharkatu, zubia igaro, Lili jauregia ikusi eta erreka ondotik oinez, zuhaitz artean eta uraren hotsak girotuta, 800 metro inguru egin behar dira Ekainberrira iristeko.

Gozatu ibilbideaz bisitaren zati baita!

5. BEHIN IRITSITA

Ekainberrira iristean, taldeko arduraduna harrerara hurbildu behar da. Han, bisitarako azken xehetasunak emango dizkizute, burutu beharreko ekintzetaz lasai eta ondo gozatzeko taldeak nola banatu, etab. Ekainberrin puntualidadea oso garrantzizkoa da. Taldea bere ordua baino beranduago badator ezin dugu bisitarako aukera bermatu, atzetik beste taldeak egon daitezkelako.

Gogoratu, denen onerako, Ekainberri bisitatzeko arau batzuk jarraitu behar direla.

- Erreplika barruan ezin da irudirik hartu (argazki edo bideoa).
- Jan eta edateko bereziki prestatutako lekuak erabili.
- Taldeek hamaiketako edo bazkaria Sastarrain inguruan egin nahi izanez gero, Zubimuxu eta futbol zelai artean mahai eta aulkiekin prestatutako gune bat dago, Ekainberri ez da horretarako leku aproposa.
- Hondakinak botatzeko horretarako prestatutako zabor ontziak erabili.
- Bisitan telefono mugikorra itzaltzea eskatzen da.
- Animaliak ezin dira sartu, itsuen zakur-gidak izan ezik.
- Eraikuntza barruan erretzea debekatuta dago.
- Alderantzizkoa esan ezean, ezin dira bitrinak, erakusgai dauden objektuak edo erreplika bera ukitu.
- Eraikuntza barruan korrika ez egitea, isiltasunez entzutea eta ahopeka hitz egitea eskatzen da.
- Berokiak, motxilak eta aterkiak soinean eraman edota horretarako prestatutako takiletan gordeta utzi.
- Ekainberriko instalazioetan ezin da baloi, patinete, patin eta antzekoekin ibili, takiletan utzi beharko dira.
- Gehienez 25 pertsonako taldeak osatuko dira.
- Ikasle taldea irakasle edo arduradun batekin behintzat egongo da Ekainberriko gune guztietan.
- Irakaslearen parte hartze aktiboa beharrezkoa da.

6. EKAIN FAMILIA ETA PEIO ARKEOLOGOA

Hauek dira Ekainberriko gure laguntzaile berriak. Shaira, Samai, Naika, Narel, Kael, Loane eta Peio gurekin batera zuen ekintza ahal den onena eta probetxugarriena izateko ahaleginak egingo dituzte.

Ziklo bakoitzak bere pertsonaia du eta berekin ikasiko dituzte teknika diferenteak eta esperientzi berriak izango dituzte. Ikastetxeko txikienak Loanerekin egongo diren moduan, handienak Peio arkeologoarekin egingo dute lan. Ikasleek beraien nahi eta bizipenen errefleju den lagun berri bat izango dute Ekainberrin.

“

Kaixo! Ongi etorriak izan zaitezela gurera. Gu Ekain kobazuloan bizi garen familietako bat gara eta Ekainberriko gure lagunek zuen bisitan lagun izatea eskatu digute. Gurekin batera gure bizimodua, ohiturak eta artea ezagutu ahal izango dituzue. Badakigu zuen eta gure artean urte aaaasko pasa direla, horregatik guk irakatsitakoa zuentzako altxor bat izatea nahiko genuke. Ongi etorriak gure etxera!



“

leup!! Ni Peio naiz, Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologo bat. Ekainberrin egiten dut lan Ekain kobazuloko ikertzaileetako bat bainaiz. Ikastetxeetako handienei lagunduko diet Ekain eta Ekainberrik ezkututzen dituzten altxorak aurkitzen. Ziur nago sorpresa handia izango dutela zuen ikasleek hemen egin ditzaketen gauza guztiak aurkezten dizkiedanean. Ikusiko duzue!!





7. ESKAINTZA DIDAKTIKOA

7.1. Ezaugarriak

Ekainberriko eskaintza didaktikoa haur hezkuntzatik goi ikasketak bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Ikasleek bere adin, ezagutza maila eta gaitasunetara egokitutako eskaintza berezia izango dute Ekainberrin.

Ekintza guztiek bi ordutako iraupena dute eta erreplikara bisita, erakusketa gela eta tailerra uztartzen dituzte. Horrela, modu atseginean Ekaingo gizakien bizimodua eta pinturak gertutik ezagutu, barneratu eta ulertzeko aukera izango dute denek.

Ikasketa mailaren arabera gure bisitariarentzat egokitutako eskaintza honetan, ikasleek bi ordutan zehar gai baten inguruan arituko dira. Erreplika modu desberdinean ikusiko dute, erakusketa gelan denbora gutxian elementu nagusiak bilatuko dituzte eta tailerrean dagokien gaiaren inguruko lan praktikoa burutuko dute.

Ikasketa maila	Eskaintza
HH (4-5 urte)	Kobazuloan Bizi
LH 1-2	Animaliei Jarraika
LH 3-4	Suaren bila
LH 5-6	Goazen ehizara
DBH 1-2	Ehiza egun bat
DBH 3-4	Ekaingo Artista
Batx - Goi Ikask.	Arkeologoa naiz

Ekainberrira etorri aurretik, ikasleek historiaurreko bizimoduaren inguruan ezagupenen bat izatea oso gomendagarria da. Horrela, askoz ere gehiago baloratuko baitute bertan egindakoa eta konprobatuta dugu gehiago disfrutatuko dutela ere. Asmo horrekin eta irakasleei laguntza txiki bat eskaintzeko asmoz eskolan burutu daitezkeen zenbait ariketa diseinatu ditugu. Webgunean aurkitu ditzakezue.

7.2. Helburu Orokorrak

Ekainberrik bere eskaintza didaktikoa prestatzerako garaian, oinarrizko curriculumaren arabera ikasketa prozesuko etapa bakoitzean lantzen diren hurrengo helburu orokorrak hartu ditu kontutan:

Haur Hezkuntza (4-5 urte)

1. Familia-, natura- eta gizarte-inguruneari behatzeko eta horiek aztertzeke, eta baita horiek ezagutzeko interesa izateko ere, inguruko gizarte- eta kultura-jardueretan
2. Ingurukoekin harremana izateko eta bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarrizko arauak barnertzeke, gatazkak modu baketsuan ebazten treba dadin.
3. Zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatzeko.
4. Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hasteko, eta mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hasteko, inguruan duen mundua uler eta interpreta dezan.

Lehen Hezkuntza (LH 1-6)

1. Berezko ezaugarriak dituzten gizarte eta kultura taldeetako kide izatea onartzea eta aintzat hartzea; norberaren kulturaren ezaugarriak eta gainerako taldeekiko ezberdintasunak balioestea, gainerako identitate, kultura eta herriak errespetatzea, eta Giza Eskubideak errespetatu behar direla gogoratzea, hezkuntzaren kultura arteko dimentsioa sustatzeko asmoz.
5. Gizakiak ingurunean egindako esku hartzeen zenbait adierazpen aztertzea, eta horiek iraunkortasunaren parametroetatik kritikoki balioestea, betiere, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatzearen eta berreskuratzearen, eta kultura ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko.
6. Ikaslearen inguruko natura, gizarte eta kultura ingurunean denboraren poderioz gertatutako aldaketa eta eraldaketak hautematea eta kritikoki balioestea, eta aldaketa horien aldiberekotasun eta segida harremanak aztertzea, hortik eratorritako ezagutzak gainerako memento historikoak ulertzeko unean aplikatzeko.



Bigarren Hezkuntza (DBH 1-4)

1. Gertaera sozialak bultzatzen dituzten prozesuak eta mekanismoak eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harremanak ezagutzea; ezaguera hori, ondoren, gaur egungo gizartearen bilakaera eragin duten kausak ulertzeko erabiliko da, baita gizarte horietan gizonezkoek eta emakumezkoek betetzen duten zeregina balioesteko eta haiek izaten dituzten arazo nagusiak zein diren ulertzeko ere. Horren guztiaren helburua Historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa eskuratzea da.
4. Euskal Herriarentzat garrantzitsuak izandako gertaera historikoen prozesuak denboran eta espazioan ezagutzea eta kokatzea; horri esker, Euskal Herria osatzen duten lurraldeen bilakaera historiko, sozial eta kulturala ikuspegi globaletik antolatu eta garatzea. Hori guztia kokatuko dute ikasleek, horietako gertaera bakoitzaren esanahi politikoa, ekonomikoa eta kulturala aintzat hartuta.
5. Gizateriaren historiako gertaera historiko eta prozesu garrantzitsuenak ezagutzea eta denboran eta espazioan kokatzea, haren bilakaeraren ikuspegi globala izateko eta hura interpretatzeko; eta, hala, komunitate sozialen aniztasunaren jatorria behar bezala ulertzeko.
7. Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko arte adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea eta balioestea, gizadiaren arte-garapenari kultura guztiek egindako ekarpenak aintzat hartzeko eta balioesteko; eta, orobat, nork bere kulturako eta beste kulturetako historia-, arte-, kultura- eta natura-ondarea balioesteko eta errespetatzeko, bere burua eta taldea aberasteko baliabidetzat hartuta.

Batxilergoa

Historiako irakasgai komunaren helburuak:

1. Espainiaren eta Euskal Herriaren historia-bilakaeran izandako gertaera, prozesu eta protagonista behinenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, denboran eta espazioan kokatuta, bi errealitate historiko horien egungo osaeran izan duten eragina ikusteko
3. Prozesu historikoan izaten diren aldaketak eta irauten duten gauzak azaltzen dituzten faktoreak ulertzea, eta gizarte-gertaerei lotutako kausalitate askotarikoa ulertzea.
11. Kontzientzia konprometitua, arduratsua eta aktiboa garatzea Euskal Herriko eta Espainiako arazoan aurrean, bereziki honako hauei dagokienez: eskubide demokratikoen, giza eskubideen eta bakearen defentsa; ondarearen errespetua eta kontserbazioa; eta edozein diskriminazio mota baztertzea.
12. Egungo gizarteari eta Euskal Herriaren nahiz Espainiaren iragan historikoari buruzko norberaren ikuspuntuak argudiatzea, besterenak kontuan hartzea, ulertzea eta errespetatzea, eta ikuspegi berdintzaileak eta hertsiaik gainditzea, Espainian eta Euskal Herrian dagoen aniztasuna errespetatzeko, eta denok batera irtenbideak bilatzeko, bizikidetzak demokratikoa izan dezagun, eta arazoak konpon ditzagun.

Marrazketa artistikoa: modalitateko irakasgaia

6. Testuinguru soziokulturala kontuan hartuz, ondare unibertsaleko lanen berezko elementu formalak eta estetikoak identifikatzea eta adieraztea, norberaren irudiak eta haien adierazpen-aukerak aberasteko.

Adierazpen grafiko-plastikoaren teknikak: modalitateko irakasgaia

6. Arte-adierazpenak, haiek sortu dituzten pertsonak eta sortu ziren testuinguruak balioztatu eta errespetatzea, iritziak eta esperientziak trukatzeko jarrera irekia erakutsiz, arte esperientziak trukatzeko eta kulturen arteko harremanek nola aberasten gaituzten konturatzeko.
7. Irudi eta artelanak ikuspegi kritikotik interpretatzea, lan horiek sortu ziren testuinguruaren barruan, kasu bakoitzean erabilitako teknika, prozedura, euskarri, tresna eta materialak aintzat hartuta eta terminologia zehatza behar bezala erabiliz, behatzeko, gauzak aztertzeko eta komunikatzeko gaitasuna bultzatzearen.
8. Artelanak behatzeko garaian, erabilitako teknikak eta adierazmoldeek duten garrantziaz jabetzea, eta haien testuinguru historiko eta kulturalarekin erlazionatzea, teknika horiek historian zehar izan duten bilakaera ulertu eta ekarpen berriek zertan laguntzen duten ikusteko.



Artearen historia: modalitateko irakasgaia

1. Historian zehar, artea zer den adierazteko izan diren moduak eta horien arteko diferentziak ulertzea eta balioestea, eta artearen gizarte-funtzioen bilakaeraz jabetzea, adibide jakin batzuei erreparatuta. Hori lortzeko, artistak balioetsiko dira, munduko kulturei eta historia-aroari erreparatuta.
2. Artelanek osagai historiko-kulturala eta osagai estetiko formala dutela ulertzea. Osagai horiez bere horretan goza daiteke iruzkin eta irakurketa espezifikoen bitartez, eta garai baten eta garai hartako kulturaren testigantza gisa balioets daitezke.
3. Artea aldaera historiko asko dituen adierazpen modua dela eta hainbat aldi artistikotan irakurketa esanguratsuak egitea ahalbidetzen duela ulertzea. Horretarako, artisten eta gizartearen arteko harreman bereziak eta garai bateko edo etorriko diren garaiei dagokienez egin edo egingo diren aldaketak adieraziko dira.
4. Azterketa-metodo bat erabiltzea, sentikortasuna eta irudimena lantzeko eta berariazko terminologia eskuratzeko, eta, era berean, metodo horren bidez, arte-estiloen formen, gaien eta funtzioen oinarritzko ildoak laburbiltzea.
5. Mendebaldeko arte-estilo nagusietako artista behinenak eta arte-adierazpen nabarmenenak ezagutu, bereizi eta aztertzea (berariaz aipatuko da Euskal Herrian eta Espainian ekoiztutako artea), eta behar bezala kokatzea denboran, espazioan eta testuinguru historikoan, aldaketak eta jarraitutasunak ikusteko eta talde-ondareko elementu gisa balioesteko.
6. Gure ondare artistikoa ezagutu, hartaz gozatu eta balioestea, modu aktiboan lagunduz ondare hori zaintzen eta etorkizuneko belaunaldiei helarazten, eta hondatzen duten jokabideak eta arriskuan jarriko duten proiektuak ukatuz.
7. Sentikortasun artistikoa, gozamen estetikorako gaitasuna eta zentzu kritikoa garatzea, sortze-lan artistikoak aztertzean norberaren sentimenduak eta ideiak adierazten ikasteko, artelanak ulertzeko askotariko moduak errespetatuz eta estereotipoak eta aurreiritziak gaindituz.
9. Museo, erakusketa eta monumentu interesgarri eta esanguratsuenetako artelanen kokalekua zehaztea, artelanok ezagutzea, aztertzea eta haietaz gozatzea. Horretarako, ahal denean, zuzeneko behaketa erabiliko da irteeren, bisiten eta ibilbide artistikoen bitartez, estiloen bereizgarri diren ezaugarriak antzemateko eta garai berean gara daitezkeen korrante estetikoan aniztasuna balioesteko.

7.3. Eskaintza Zehatza

HH (4-5 urte): *Kobazuloan Bizi*

Iraupena: Ordu bat

Ekintza: Erreplika ikusi + tailerra

Laburpena: Haurrak lehen gizakiaren mundura hurbiltzea da asmoa. Horretarako pertsonaia bat sortuko dugu eta honek erakutsiko dizkie berak egindako irudirik ederrenak, kolorearekin egindakoak. Horretarako erabili dituen tresnak ere esku artean izano dituzte. Janaria lortzeko ehizatu eta bildu beharra zuen lehen gizakiak, lan horietarako erabiltzen zituen lehengaiak esku artean izan, ehizatzen zituzten animalien soinuak entzun eta margotuko dituzte ikasleek.

Kobazuloan bizi Helburu didaktikoak

Prozedurazkoak


- Lehen gizakiaren azalpenak entzutea.
- Ekaingo marrazkiak ikustea.
- Lehen gizakiak tresnak egiteko erabilitako materialak ukitu eta asmatzea.
- Animalien soinuak, irudiak eta letrak identifikatzea.

Jarrerazkoak

- Gida eta ikaskideekin errespetuz jokatzeko.
- Lehen gizakiaren bizimoduaren gogortasuna baloratzea.
- Ekaingo pinturak baloratzea.
- Beste garaietako bizimoduaren inguruko kuriositatea.
- Arbasoekiko interesa eta errespetua.
- Kobazuloa ezagutzeko eta aztertzekeo interesa.

Emozionalak

- Uraren soinuarekin disfrutatzea.
- Pinturak emozioz deskubritzea.
- Ekaingo pinturen edertasunarekin gozatzea.
- Animalien soinuak entzuteko kuriositatea.
- Taldeko partaide sentitzea.





HH

LH 1-2

LH 3-4

LH 5-6

DBH 1-2

DBH 3-4

Batx.

LH 1-2: Animaliei Jarraika

Iraupena: 2 ordu

Ekintza: Erreplika ezagutu + erakusketa gela + tailerra

Laburpena: Ikasleek, lehen gizakiaren garaian Sastarrain bailara inguruan bizi ziren animaliak gertutik ezagutuko dituzte. Taldetan banatu eta bakoitzak animalia bat aukeratuko du, hurrengo ekintza guztiak horren inguruan burutuko dituzte. Tailerlean lehen gizakien antzera marraztuko dituzte animaliak, erreplikan zehar animalia hori bilatu eta deskribatzen saiatuko dira eta erakusketa gelan ere animalia horien irudiak topatuko dituzte.

Animaliei jarraika Helburu didaktikoak

Kontzeptualak

- Ekaingo animalia protagonista zaldia dela ezagutzea.
- Ekaingo animalia nagusiak identifikatu eta bereiztea: hartzia, oreina, zaldia eta bisontea.
- Ekaingo pinturretan bi kolore, gorria eta beltza, erabili zituztela jakitea.
- Ekaingo pinturak erabat bestelako zen bizimoduarekin lotzea.
- Lehen gizakiak batez ere ikatza eta buztinarekin marrazten zuela jakitea.

Prozedurazkoak

- Animalien deskribapenak egitea.
- Taldean hitz egiteko gaitasuna jorratzea: iritzia eta sententziak plazaratuz.
- Analisi txikiak burutzea.
- Gidaren azalpenen bidez informazioa jasotzea.
- Konparaketa jorratzea : Gaur egungo eta paleolito garaiko animalia eta gizakien bizimoduari dagokionean.
- Mural baten gauzatzea.
- Taldeka, errespetuz lan egitea.
- Okrea, ikatza eta argizariarekin marraztea.
- Ekaingo gizakien antzera margotzea.

Jarrerazkoak

- Gida eta ikaskideekin errespetuz jokatzeko.
- Lehen gizakiaren bizimoduaren gogortasuna baloratzea.
- Arte adierazpenen balorazioa eta gozamina, batez ere Ekain eta bere pinturrei dagokienean.
- Beste garaietako adierazpenen inguruko kuriositatea.
- Arbasoekiko interesa eta errespetua.
- Ondare historikoaren balorazioa eta berau babestu eta hobetzeko jarrera.
- Ekaingo kobazuloa ezagutzeko eta aztertzearen interesa.
- Lehen gizakiaren sinismeneko interesa eta errespetua.
- Besteen iritziekiko errespetua, interesa eta kontsiderazioa.

Emozionalak

- Iluntasunaren sentsazioa esperimintatzea.
- Uraren soinuarekin disfrutatzea.
- Pinturak emozioz deskubritzea.
- Eskuekin marraztuz disfrutatzea
- Harrotasuna beraien eskuak Ekainberriko muralean jartzerakoan.





HH

LH 1-2

LH 3-4

LH 5-6

DBH 1-2

DBH 3-4

Batx.

LH 3-4: Suaren Bila

Iraupena: Bi ordu

Ekintza : Erreplika ikusi + erakusketa gela + tailerra

Laburpena: Bi ordutan suarekin lotutako ekintzak burutuko dituzte ikasleek, suak Paleolito garaian zuen garrantziaz jabetuko dira horrela. Kobazuloko iluntasuna sentitu eta biziko dute, lehen gizakiak barrura sartu eta bertan marrazteko erabili beharko lukeen sua lortzen saiatuko dira. Erreplikara sartzeko momentuan linternetik ordezkatuko dute sua eta hauen argiarekin deskubrituko dute kobazuloa eta bertako irudiak, jolas moduan ezagutuko dute Ekain. Sua lortzeko beharrezko tresnak eta horiekin lotutako aztarnak bilatuko dituzte erakusketa gelan.

Oharra: gehienez bi ikasle batak linterna ekarri beharko du.

Suaren bila Helburu didaktikoak

Kontzeptualak

- Ekaingo irudiak lehen gizakiak, duela milaka urte, egindakoak direla barneratzea.
- Ekaingo gizakien bizimoduaren bizpairu ezaugarri adierazteko gai izatea.
- Ekaingo animalia protagonista zaldia dela ezagutzea.
- Ekainen agertzen diren 4 animalia identifikatzea.
- Ekaingo pinturetan erabiltzen diren bi koloreak bereiztea: gorria eta beltza.
- Irudiak egiterakoan arrokaren forma aprobetxatzen zutela barneratzea.
- Suak zuen garrantziaz jabetzea.
- Sua lortzeko bi prozedura nagusiak ezagutzea.
- Eguneroko bizitzako alderdi batzuen eboluzioa ezagutzea Ekaingo Madelein aldiko gizataldea abiapuntutzat hartuz.
- Sastarrain bailarako historian gizon eta emakumeek bete duten zeregina balioestea
- Lehen gizakien sentsibilitate artistikoa ezagutzea, margoetan adierazten zutena bereziki.

Prozedurazkoak

- Ekaingo kobako margoen bilaketa linternen bidez.
- Animalia ezberdinen identifikazioa.
- Paleolitoko eta gaur egungo gizartearen arteko konparaketa.
- Ekaingo margoen deskribapena.
- Sua lortzeko bi prozesu nagusien bidez (kolpez eta igurtziz) sua lortzen saiatzea.
- Sua egiteko material ezberdinak (suharria, markasita, hezurak, makilak, etab.) esku artean ibili eta identifikatzea
- Sua egiteko teknika ezberdinen egokitasuna aztertzea.
- Sua lortzeko eman beharrezko pausoen dedukzioa/ondorioztatzea.

Jarrerazkoak

- Gida eta ikaskideekin errespetuz jokatzea.
- Linternak itzali behar direnetan horrela mantentzea.
- Ekain, bertako pinturak eta orokorrean arte adierazpenen balorazioa.
- Leku sakratuetan errespetuz jokatzea.
- Kobako misterioarekiko gozamena.
- Ondare historikoaren balorazioa eta berau babestu eta hobetzeko jarrera.
- Beste garaietako adierazpenen inguruko kuriositatea eta balorazioa.
- Arbasoekiko interesa eta errespetua.
- Iraganeko gertaerak ezagutzeko historia ikerketen garrantziaren balorazioa.
- Ekaingo kobazuloko biztanleen bizimodua ezagutzeko eta aztertzekeo interesa.

Emozionalak

- Iluntasunaren sentsazioa esperimentatzea.
- Uraren soinuarekin disfrutatzea.
- Pinturak emozioz deskubritzea.
- Ekaingo gizakiek egindako lanaren garrantziaz jabetzea, bere zailtasunagatik eta lortutako edertasunagatik.
- Kea edo txispak lortzerakoan poztasuna.
- Euren eskuekin sua lortzeko ilusioa.





HH

LH 1-2

LH 3-4

LH 5-6

DBH 1-2

DBH 3-4

Batx.

LH 5-6: Goazen ehizara

Iraupena: Bi ordu

Ekintza : Erreplika ikusi + erakusketa gela + tailerra

Laburpena: Ekaingo giza taldea ehiztari-biltzailea zen. Batez ere oreinak, basahuntzak eta orkatzak ehizatu zituzten eta gure ikasleak ere horretan sailtuko dira. Paleolito garaiko gizakien ehiza tresnak ezagutu ondoren, azagaia, bultzagailua, uztia eta geziarekin bazkaria lortzen saiatuko dira. Erreplikan egindako ibilbidean zehar gidak kobazuloko animaliak non marraztu zituzten adieraziko die. Labar artea eta ehizaren arteko erlazioa berezi xamarra dela ohartuko dira irudiak behatzerekin batera.

Goazen ehizara Helburu didaktikoak

Kontzeptualak

- Ekaingo gizataldeak ingurunearekin zuen harreman estuaz jabetzea.
- Ekainen bizi zen homo sapiensaren gizarte ehiztari eta biltzaileen bizimodua gertutik ezagutzea.
- Ekaingo gizataldea eta gaur egungo gizartearen arteko berdintasunak identifikatzen saiatzea.
- Arma batzuk identifikatzea eta beren funtzioa ezagutzea.
- Ekain zaldiaren santutegi bezala definitzea.
- Ekaingo aztarnategia/bizilekua eta santutegia bereiztea.
- Ekaingo 3 animalia nagusiak identifikatzeko gai izatea: zaldia, bisontea, hartzak
- Labar artean erabilitako bi teknika nagusiak bereiztea: grabatua eta pintura
- Labar artea hitza erabiltzea.

Prozedurazkoak

- Gezien jaurtiketa.
- Ehiza herraminten deskribapena eta konparaketa.
- Azagaien jaurtiketa.
- Informazio bilketa gidaren azalpen eta erakusketa gelako panelen bidez.

Jarrerazkoak

- Ekaingo iraganeko ehiztarien bizimoduari buruz jakiteko interesa.
- Gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa.
- Giza taldeen kultura ondarea den aldetik, Ekaingo ondare historiko- artistikoa eta naturalaren balioespena, errespetua eta haiekin gozamina, eta hura zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek Sastarrain bailarako historian izan duten zereginaren balioespena.
- Labar artea errespetatu eta bere neurrian baloratzea.
- Labar artea zabaltzea eta kontserbatzearen neurrien alde egitea: erreplikak sortzea kasu.
- Gida eta taldekideekin errespetuzko harremana mantentzea

- Enpatia historikoa eta iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioak ezartzeko interesa.
- Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenekiko balioespena eta errespetua.

Emozionalak

- Tenperatura aldaketa sentitzea.
- Iluntasunera ohitzea.
- Uraren hotsarekin eta erreplikako giroarekin disfrutatzea.
- Irudiak interesarekin behatzea,
- Armak esku artean edukitzearen emozioa.
- Harrotasuna dieran asmatzerakoan.





HH

LH 1-2

LH 3-4

LH 5-6

DBH 1-2

DBH 3-4

Batx.

DBH 1-2: Ehiza Egun Bat**Iraupena:** Bi ordu**Ekintza :** Erreplika ikusi + erakusketa gela + tailerra

Laburpena: Ekaingo giza taldearen bi ezaugarri nagusi uztartuko dituzte ikasleek, pintura eta ehiza. Helburua galdera honi erantzutea izango da, "ehizatzeke margotu al zuten?" Horretarako, Ekaingo kobazuloan duela 13.000 urte egindako irudiak fitxa batzuen laguntzarekin ikertuko dituzte alde batetik. Bestetik, ehizaren mundura hurbilduko dira, historiaurreko armak erabiliz, janaria eta bestelako lehengaiak lortzeko estrategiak diseinatuz eta ehizatuko dituzten animaliak aukeratuz. Bi orduen ondoren ondorio argi bat izango dute behintzat, Ekainen ez zuten ehizatzen zuten hura marraztu.

Ehiza Egun Bat Helburu didaktikoak**Kontzeptualak**

- Ekaingo gizataldeak ingurunearekin zuten harreman estuaz jabetzea.
- Ekainen ibiltzen zen homo sapiensaren gizarte ehiztari eta biltzaileen bizimodua gertutik ezagutzea.
- Ekaingo gizataldea eta gaur egungo gizartearen arteko berdintasunak identifikatzen saiatzea.
- Arma batzuk identifikatzea eta beren funtzioa ezagutzea.
- Ekain zaldiaren santutegi bezala definitzea.
- Ekaingo 3 animalia nagusiak identifikatzeko gai izatea: zaldia, bisontea, hartzak
- Labar artea hitza erabiltzea.
- Labar artea garaiko sinismenekin lotzea.

Prozedurazkoak

- Gezien jaurtiketa.
- Ehiza herraminten deskribapena eta konparaketa.
- Azagaien jaurtiketa.
- Ikaskideen aurrean hitz egin eta iritzia ematea.
- Talde lana burutzea.
- Analisi txikien burutzea, Ekaingo irudien inguruan.
- Labar artearen zergatiaren inguruan hipotesiak gauzatzea.
- Talde estrategiak antolatzea.

Jarrerazkoak

- Ekaingo iraganeko ehiztarien bizimoduari buruz jakiteko interesa eta ikusmina.
- Giza taldeen kultura ondarea den aldetik, Ekaingo ondare historiko- artistikoa eta naturalaren balioespena, errespetua eta haiekin gozamina, eta hura zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek Sastarrain bailarako historian izan duten zereginaren balioespena.
- Labar artea errespetatu eta bere neurrian baloratzea.

- Labar artea zabaldu eta kontserbatzearen neurrien alde egitea: erreplikak sortzea kasu.
- Gida eta taldekideekin errespetuzko harremana mantentzea
- Enpatia historikoa eta iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioak ezartzeko interesa.
- Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenekiko balioespena eta errespetua.
- Historiaurrean eta gaur talde lanak duen garrantziaz jabetzea.

Emozionalak

- Temperatura aldaketa sentitzea.
- Iluntasunera ohitzea.
- Uraren hotsarekin eta erreplikako giroarekin disfrutatzea.
- Armak esku artean edukitzearen emozioa.
- Asebetetzea dieran asmatzerakoan.
- Taldeko partaide gisa baloratua sentitzea.





HH

LH 1-2

LH 3-4

LH 5-6

DBH 1-2

DBH 3-4

Batx.

DBH 3-4: Ekaingo Artista

Iraupena: Bi ordu

Ekintza : Erreplika ikusi + erakusketa gela + tailerra

Laburpena: Bi ordutan zehar gure ikasleak Ekaingo artista bihurtuko dira.

Horretarako, historiaurreko arteak jorratzen dituen bi alor nagusiak gertutik ezagutu beharko dituzte. Alde batetik kobazulo barruko artea, labar artea, ikusi eta ikertuko dute. Taldetan antolatuta eta fitxa batzuen laguntzarekin egingo dute ikerketa txiki hau erreplika barruan. Bestetik, aire zabalean eta beste euskarrien gainean egindako artearen, arte erabilkorren, inguruko informazioa jasoko dute. Erakusketa gelan dagoen Ekaingo plaketa ikusi eta aztertu ondoren, ikasleak euren plaketa sortzen saiatuko dira.

Ekaingo Artista Helburu didaktikoak

Kontzeptualak

- Artea eta artista hitzak modu zabalean ulertzea.
- Ekain zaldiaren santutegi bezala definitzea.
- Ekaingo 3 animalia nagusiak identifikatzeko gai izatea: zaldia, bisontea, hartzak
- Ekaingo aztarnategia/bizilekua eta santutegia bereiztea.
- Enkontrismoaren teknikaren nondik norakoak bereganatzea.
- Paleolitoko bi arte motak definitzea: labar artea-arte erabilgarria
- Labar artean erabilitako bi teknika nagusiak bereiztea: grabatua eta pintura.
- Labar artea garaiko sinismenekin lotzea.
- Monokromia eta bikromia hitzak ulertu eta erabiltzea.
- Historiaurreko artean erabilitako elementu nagusiak ezagutzea: ikatza, okrea, manganesoa eta suharria.

Prozedurazkoak

- Ekaingo kobazuloaren aztertzea.
- Labar artearen inguruko ikerketa txikia burutzea.
- Taldean lan egitea, elkarlana bultzatuz.
- Ikaskideen aurrean hitz egin eta iritzia ematea.
- Labar artearen zergatiaren inguruan hipotesiak gauzatzea.
- Fitxak irakurri eta betetzea.
- Behaketan oinarritutako lana burutzea.
- Eskulanetan trebatzea.
- Igeltsoa eta okrea erabiliz plaketa egitea.

Jarrerazkoak

- Giza taldeen kultura ondarea den aldetik, Ekaingo ondare historiko-artistikoaren balioespena, errespetua eta haiekin gozamina, eta hura zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek Sastarrain bailarako historian izan duten zereginaren balioespena.
- Historiaurreko artea errespetatu eta bere neurrian baloratzea.
- Labar artea zabaldu eta kontserbatzearen neurrien alde egitea: erreplikak sortzea kasu.

- Gida eta taldekideekin errespetuzko harremana mantentzea
- Enpatia historikoa eta iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioak ezartzeko interesa.
- Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenekiko balioespena eta errespetua.

Emozionalak

- Temperatura aldaketa sentitzea.
- Iluntasunera ohitzea.
- Uraren hotsarekin eta erreplikako giroarekin disfrutatzea.
- Taldeko partaide gisa baloratua sentitzea.
- Historiaurrea aztertzeke gai sentitzea.
- Plaketa sortzearen harrotasuna.
- Bakoitzaren eskulanekeko gaitasuna baloratzea.





HH

LH 1-2

LH 3-4

LH 5-6

DBH 1-2

DBH 3-4

Batx.

Batx. – Goi Ikask.: Arkeologia naiz

Iraupena: Bi ordu

Ekintza : Erreplika ikusi + tailerra

Laburpena: Arkeologoena lana gertutik ezagutzeko aukera izango dute ikasleek bi ordutan zehar. Arkeologiaren nondik norakoak ezagutu eta egun batez arkeologoena lana burutuko dute ikasleek. Arkeologia esperimentalaren erabiliaz Ekaingo gizakien bizimodura hurbilduko dira. Erakustaldi baten bitartez, gidak zenbait laguntzailearen parte hartzearekin batera, gizaki haiek sua, pintura eta ehiza nola egiten zuten erakutsiko die. Taldetan banatuta erreplikara sartuko dira gure arkeologoak, bertan labar artea aztertuko dute, panelen eta irudien analisisa eginez. Lan hau burutzeko fitxa baten laguntza izango dute.

Arkeologia naiz Helburu didaktikoak

Kontzeptualak

- Ekain zaldiaren santutegi bezala definitzea.
- Ekaingo aztarnategia/bizilekua eta santutegia bereiztea.
- Ekaingo 3 animali nagusiak identifikatzea.
- Labar artea garaiko sinismenekin lotzea.
- Labar artea paleolitoarekin identifikatzea.
- Ekaingo gizakiaren bizimoduaren oinarritzko 2 ezaugarri nabarmentzeko gai izatea.
- Labar artean erabilitako bi teknika nagusiak bereiztea: grabatua eta pintura.
- Labar artea aztertzeko oinarritzko kontzeptuak erabiltzea.
- Aztarna arkeologikoak historiaren informazio iturri garrantzitsuak direla ohartzea.
- Ekaingo gizataldeak ingurunearekin zuten harreman estuaz jabetzea.
- Enkontrismoaren teknikaren nondik norakoak bereganatzea.

Prozedurazkoak

- Ekaingo kobazuloaren azterzea.
- Labar artearen inguruko ikerketa txikia burutzea.
- Fitxak irakurri eta betetzea.
- Taldean lan egitea, elkarlana bultzatuz.
- Gidaren erakustaldian oinarrituta paleolito garaiko bizimoduaren ezaugarri nagusien ondorioztatzea.
- Behaketan oinarritutako lana burutzea.
- Arkeologia esperimentalaren bidez Ekaingo gizakien bizimodura gerturatzea.

Jarrerazkoak

- Labar artea zabaldu eta kontserbatzearen neurrien alde egitea: erreplikak sortzea kasu.
- Gida eta taldekideekin errespetuzko harremana mantentzea.
- Ekaingo iraganeko errealitate sozialari buruz jakiteko interesa eta ikusmina eta gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa.
- Giza taldeen kultura ondarea den aldetik, Ekaingo ondare historiko-artistikoa eta naturalaren balioespina, errespetua eta haiekiko gozamina, eta hura zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera.

- Enpatia historikoa eta iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioak ezartzeko interesa.
- Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenekiko balioespena eta errespetua.

Emozionalak

- Tenperatura aldaketa sentitzea.
- Uraren hotsarekin eta erreplikako giroarekin disfrutatzea.
- Bisitaldi atsegina izatea.
- Emozioa sua lortzen saiatzerakoan.
- Asebetetzea historiaurreko armekin jaurtitzekoan.
- Harridura aerografoaren teknika ezagutzekoan.
- Sua pizteko grina izatea.

